

Frik irakaslea: “Indarkeria saihesten ahalegintzen gara”

Bere benetako izena, Christian Díaz bada ere, “Frik” irakasle moduan ezagutzen dute Capoeiran. Duela urte t’erdi hasi zen Ermuko kiroldegian Brasilen sortu zen Capoeira disziplina irakasten. Urriaren 28an Capoeiraren Nazioarteko Lehenengo Topaketak izango dira Ermuko kiroldegian.

-Duela zenbat denbora hasi zinen Capoeirarekin?

Orain dela 11 urte. Ni Tenerifen jaio nintzen baina Capoeira dela eta, munduan zehar bidaia ugari egin ditut. Lagun bati esker, entrenatzen hasi nintzen eta zaletasun moduan hartu nuen. Gutxiak gutxiak sakontzen hasi nintzen, Irlandara joan eta nire lehenengo lana Capoeira irakasle moduan hasi nuen. Gero, Espainiako hegoaldean ibili nintzen eta duela 4 urte Bilbon ari naiz, Capoeira Gunga Elkartarekin. Egun, Eibarren, Bilbon, Portugaleten, Durangon, Basaurin eta Ermuan ematen ditut klaseak.

-Zer da Capoeira Gunga Elkartea?

EAE-an nik sortu dudana Capoeira elkarte da. Gunga, instrumentu baten izena da, berinbao baten izena. Instrumentu horrek beste guztiak zuzentzen ditu eta horregatik jarri diot izen hori.

-Zer da Capoeira, kirola, dantza, arte martziala...?

Borraka gisa definitu daiteke, dantzaren bitartez disimulatzen den borroka alegia. Batzuek break-danceren itxura duela uste dute baina ez du zerikusirik. Capoeira filosofia gisa borroka da, baina guk, beste pertsonarekin inoiz kontakturik egon ez dadin egiten dugu lana. Horregatik, gorputzen arteko elkarriketa moduan hartzen dugu, gorputzaren bi-

tartez galderak eta erantzunak egiten ditugu. Capoeira ezaugarri ezberdinak biltzen dituen disziplina bat da eta, ezaugarriak garrantzitsuena capoeiristarentzat erritmoa da.

-Nola sortzen da Ermuan talde bat osatzeko ideia?

Gunga Elkartearen bitartez. Duela urte t’erdi hasi ginen eta momentu honetan 15 lagun ari gara. Larunbatero goizeko 10etatik eguerdiko 1ak arte entrenatzen dugu Ermuko kiroldegian.

-Taldea zabalik dago nahi duenarentzat?


Bai, nahi duena larunbatetan etor daiteke zer egiten dugun ikustera eta gustoko badu, gurekin aritu. Osasuntsua izateaz gain, oso ondo pasatzen dugu, dantzan egiten dugu eta beti taldean aritzen gara.

-Hala ere maila ezberdinak egongo dira?

Bai horrela da. Horregatik, ezer ez dakiena oinarritzko maila lortu arte taldeetik kanpo arituko da, gero poliki-poliki taldean sartuko litzateke, aurrera egin dezan.

-Capoeira nahiko berria da hemen. Jende askok ez du ezagutu ere egiten.

Duela 4 urte Euskal Herrira klaseak ematera heldu nintzenean, oso berria zen, ia ez zen ezagutzen. Gaur egun



oraindik lanean ari naiz, jendeak Capoeira ezagutu dezan, beraz, Capoeira osauntsua eta kirol disziplina bat dela erakustea da nire lana. Ez dago indarkeriarik, kontrakoa, gu indarkeria saihesten ahalegintzen gara.

-Jende guztiak egin dezakeen kirola da?

Gazteek, helduek eta zaharrek egin dezakete. Izan ere, apurka-apurka elastikotasuna irabazten da. Brasilen adin guztietako jendea aritzen da, oso ezaguna den maisu batek 90 urte dauzka.

-Ermuan egiten dituzue erakustaldiak?

Urriaren 28an Capoeiraren Nazioarteko Lehenengo Topaketak egingo dira Ermuan, eguerdiko 1etatik 2etara Kiroldegian. Bertan, munduko toki ezberdinetatik etorriko da jendea eta Ermuko taldekoekin erakustaldia egingo dute. Era berean, Gunga Capoeira taldeak lehenengo mailako graduazioa lortuko du.

Alazne Aiestaran

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia TE eta INFUSIOETAN
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan
zabaltzen dugu



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona